

## 2020/00001151 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateak honako dekretu hau eman du:

**DEKRETUA:** Hernanin, 2020/09/03,

Hernaniko Udalak dekretu honen bidez Hernaniko nekazal eremuan kokaturiko Karabeleko elkarteak bultzatzen duen gizarte proiektua babestu eta garatzen lagundu nahi du. Batetik buru osasun arazoak dituzten pertsonentzako errehabilitazio gune funtzioa sendotu, nekazaritza ekologikoan ikerketa garatu eta gizartean sentsibilizatzea. Hitzarmenaren xedea bi lan-ildoren bidez garatuko da: batetik errehabilitazio zerbitzua mantentzeko gastuetarako laguntza, bestetik sentsibilizazio, heziketa eta nekazaritza ekologikorako ikerketa garatzeko gastuak laguntzea.

Karabeleko Etxaldeak aurkeztu duen memoria eta dokumentuak aztertu ondoren

Teknikariaren aldeko txostena ikusita.

### **ERABAKI DUT:**

1- 2018 urteko urtarrilaren 8an Tokiko Gobernu Batzordean onartutako Hernaniko Udala eta Karabeleko Etxalde Agroekologikoa Elkartearen artean sinatutako hitzarmenean jasotzen denari jarraituz, ordaintzeko falta diren zatiak bideratzea:

1- 2019ko bigarren zatia (4.800 euro): Kontabilitate baimendua: AD-1077-2019

Ikusita Tokiko Garapenerako Teknikariak egindako aldeko txostena Hernaniko Udala eta karabeleko Etxalde Agroekologikoaren arteko hitzarmenean jasotako jarraituz 2020 urteari dagokion 12.000 eurotako % 60 (7.200€) aurreparen gisa ordainduko da hitzarmenaren arabera.

2- 2020ko lehen zatia (7.200 euro): AD-1121-2020

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Patxi Jagoba Lapatza-Cortazar Bengoa udal idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.

Udal Idazkaria  
2020/09/03,

PATXI JAGOBA  
LAPATZA-  
GORTAZAR  
BENGOA -  
30683197R

Firmado digitalmente  
por PATXI JAGOBA  
LAPATZA-GORTAZAR  
BENGOA - 30683197R  
Fecha: 2020.09.04  
17:35:32 +02'00'